



PRENTSA-OHARRA

Txalo Produkzioak konpainiak buru emango dio bihar, asteartearekin, euskarazko *IrriZiko 2018* umore zikloari, *Etxeko saltsak* endredozko komediarekin

NAEn taularatuko dute antzezlanak Aitziber Garmendiak, Ane Gabarainek, Mikel Laskurainek eta Aitor Fernandinok

Txalo Produkzioak konpainiak buru emango dio bihar, martxoaren 27an, asteartearekin, *IrriZiklo 2018* euskarazko umore zikloari, *Etxeko saltsak* endredozko komediarekin, *Relatively speaking* antzezlana arrakastatsuan oinarritutako lan bat, non bikoteen sekretuak izango baitira ardatz nagusi. Istorioak hamaika norabidetan gurutzatuko ditu pertsonaien bideak, eta gaizki-ulertutik gaizki-ulertura, ikusleek pertsonaiek baino informazio gehiago izango dute. Mikel Laskurain eta Ane Gabarain aktoreek azaldu dituzte gaur, prentsaurrekoan, ikuskizunaren xehetasun guztiak. Emanaldia 20:00etan izango da, NAEn, eta sarrerak hiru euro balio du. Oraingoan, 430 lagun bertaratu dira aurten *IrriZiklo*ko ikuskizunak ikustera.

Txalo konpainia gipuzkoarrak, Xabier Agirreren zuzendaritzapean, euskarazko zein gaztelaniazko obrak taularatzen ditu, tokian nahiz estatuan oso ezagunak diren aktoreekin, eta horri esker Euskal Herrian zein kanpoan emanaldi gehien egiten dituzten euskal konpainietako bat da. *La ratonera* obra bi mila alditan baino gehiagotan antzeztu zuen hiru urtetan zehar, eta konpainia bat egon zen Madrilan lan hori antzeztzen, eta beste bat biran.

Ordur geroztik, euskarazko antzezlana txikiagoak eta urtean ekoizpen handi bat –izen handiko aktoreekin egindakoa– uztartzen dituzte. Txalok mota askotariko antzezlana produzitu eta koproduzitu ditu (drama, misterioa, haurrentzako komediak, bakarriketak eta musikalak) eta sari ugari jaso ditu estatu osoan. Adibidez, 2007an, Donostia Antzerki Saria jaso zuen, *Artea* antzezlana egindatik, non Yasmina Reza frantziarraren lan arrakastatsuen euskarazko egokitzea egin baitzuen. Aurrez gaztelaniaz estreinatu eta arrakasta handia izan duten lanak egokitzeko ildoari jarraiki, *Grönholm metodoa* dago.

Euskal eszena-munduan oso ezagunak diren lau aktore eta zuzendaria

Ane Gabarain (Donostia, 1963) erregistro komikoan espezializatutako aktorea da, ETB kateko *Bi eta bat*, *Jaun ta Jabe* eta *Mi querido Klikowsky* telesailetan egindako lanagatik ezaguna. Horrez gain, Álex de la Iglesia zuzendariaren *La comunidad* eta *800 balas* filmetan parte hartu





du. Gaur egun Maritxu hezurmamitzen du *Allí abajo* telesailean. Mikel Laskurain (Bergara, 1965) euskal eszenan ibilbide luzea egin duen aktorea da baita ere, hala zineman nola antzerki zein telebistan. Zineman egindako lanen artean nabarmentzekoak dira *Loreak* (2014), *Huntza* (1992) eta *La ardilla roja* (1993).

Halaber, eskarmentu handia dauka antzerki-, zinema- eta telebista-munduan Aitor Fernandino aktore donostiarrak. Teatro Paraíso, Ados Teatroa, La Baldufa Teatre, Porpol Teatro eta Deabru Beltzak konpainiekin lan egin du, besteak beste. Aktore eta telebistako aurkezle Aitziber Garmendiak (Zaldibia, 1982) *Batek daki!* programa gidatzen du orain, ETB1 telebista-katean. Hainbat filmetan parte hartu du, *Ocho apellidos vascos* film luze arrakastatsuan, besteak beste. Bere lehen antzezpena Dario Foren *Hitz egin dezagun sexuaz* obran izan zen.

Antzezlan hau Begoña Bilbaok zuzendu du, zeinak konpainiaren beste hainbat antzezlan zuzendu baititu: *Ate joka*, *Magia Teilatuan*, *Kanpanilla eta Peter Panen itzala*, eta Oscar Wilden *The Canterville Ghost* obra famatuaren euskarazko moldaketa. Zuzendari-lanak egiten ditu hala haurrendako nola helduendako antzezlanetan. Gaur egun *Hil arte bizi* antzezlanaren zuzendari-lanetan dihardu.

Iruñean, 2018ko martxoaren 26an

